

Mikel Zurloano

EHUKO KIDEA

Inflazioa

Prezioak puztea, hori da inflazioaren esanahia. Berez ezer azaltzen ez duen tautologia. Gaur egun nozitzen ari garen prezio igoera, esaterako, zuzenean zein zeharka, lehengaiek eta batik bat erregaiek eragindakoa da gehienbat. Nolanahi ere, gure artean inflazio egoera ez da berria, euroarekin jakin dugu zer den prezioen bizkortze orokorra eta ondo apaindutako datu apalak erakutsi ditu azkenaldian urtez urteko indize ofizialak jakinik errealitatea bestelakoa zela.

Oraingoan prezio igoeraren tamaina hain da nabarmena zein ukaezina den. Erregaiak eta elikagaiak batez ere ari dira bere merkatu prezioa igotzen. Eta horrek gainerako ondasun zein zerbitzuetan zeharkako eragina du hauen produkzio kostuak igotzen baititu. Txina, India, Brasil... bezalako herrialde emerjenteen eskari hazkorra eta erregai gisa erabiltzen ari diren nekazaritza gaien erabilera alternatiboak eskaria puztu egiten dute. Honekin bat, hainbat lehengaien ekoizpenen urritzeak ekarri du eskasiaren egoera eta beraz -merkatu perfektuak agindu legez- prezioen goratzea.

Haatik, elikagaien eta petrolioaren merkatu globalak aspaldian utzi zioten konkurrentzia librekoak izateari eta oligopolioen menpekoak dira geroztik. Alegia, enpresa erraldoi gutxi batzuk dute merka-



DANI BLANCO

tuaren ia erabateko kontrola. Exxon Mobil, RD/Shell eta BP, hiru petrolio konpainia nagusiek, esaterako, nazioarteko erregaien produkzioaren eta banaketaren erdia baino gehiagoko merkatu kuota kontrolatzen dute. Elikagaietan Del Monte, Cargill, Nestle eta enparuek antzeko posizioa dute. Enpresa hauek burtsa merkatuan liderrak dira. Gainera erregai zein elikagaien *gerokoen* merkatuak daude, merkatu *eratorriak*, Chicago Mercantile Exchange bezalakoak. Ondasun hauek oinarriztat harturik finantza tituluak jaulkitzen dira bertan. *Subprime* higiezinaren krisiak eraginda finantza baliabide

ugarik ihes egin du bertatik eta lehengaien etorkizuneko merkatuetara jo dute bertako ziurtasuna eta errentagarritasuna ikusita. Honek areagotu egin du espekulazioa eta prezioak leherrarazi egin ditu, enpresa erraldoien mesedetan.

Beraz, inflazioa ez da datu hutsa. Honek arrazoiak ez ezik helburu jakinak ere baditu. Finean, errentaren birbanaketarako tresna da inflazioa: munduko merkatuetako konpainiek beren botere ahalmena erabiliz munduko errentan duten zatia handitzeko, alegia. Oraingoan petrolio konpainia zein elikagai eta banaketa konpainia handiak inflazioa erabiliz beren etekinak handitzen ari

dira, kontsumitzaileok galtzen dugun errentaren zatiaren neurri berberan, hain zuzen. ■

«
 Petrolio zein elikagai eta banaketa
 konpainia handiak inflazioa erabiliz
 beren etekinak handitzen ari dira,
 kontsumitzaileok galtzen dugun
 errentaren zatiaren neurri
 berberan, hain zuzen
 »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



de Bigorren ginen. Bezperan, auzoko bati zorabioak jo zion. Tentsio arteriala hartu nahi izan genion, hain gora zuen ezen gure gailuak ez zuen jasotzen ahal, pilota partidaren emaitzaren antza baitzuen. Medikura ekarri genuen. Bi lagun bertan gelditu ziren, beste biak aparkalekura jo genuen. Erdiguneko terraza batean geunden besteen zain. Bidez bestaldeko espaloian, berrogei bat metrora bistaratu genituen lagunak batera eta bestera so gure xerka noski. Keinuka nahi izan genien gure presentziaren berri eman. Nire ondokoaren mugikorrek jo zuen. “Halakok eskatu dik nirearen zenbakia? Parean diat, hurbil-

Bagnères

tzen ari duk”. Guregana zetozen txoriak baino kantariago. Bere onera etorria zen zorabiatutakoa, abisua omen zuen gertatutakoa, bizimoduaren ondorio normala. “Ezabatua zeukat hire zenbakia nirean eta halakori hots egin behar izan zioat”. Ez zekiena zera zen, egindako deia Kaukasoraino joana zela eta bere laguna bertako menditzarren batetik aritua izan zitzaiola mintzo. Orangek Movistari eta honek auskalori, espaloitik espaloira bidea gurutzatzea besterik behar ez zenean. Krisiak jota bizi gara, gure bizimoduaren gatibu. Tentsioarena ondorio normala dugu, goregitik eskegita gauzka mugikorrek. Deia-zen prezioa? Auskalo. Garagardo bat gutxienez. ■